



ATZEKO KALEKO BUETRIA

Halako alkarrizketia ezta ohizkoa izaten orri honeittan, baiña, sasoi honetan bakarrik agerketan dan txori arraro hau harrapo eta, Atzeko kaleko txorimaluen puxikada artian, galdera honeik egitteko okasiñua ezin geben pasaitten itxi.

- Iragoko urte honeittan Arantzazuko Amabirjiñaren egun inguruan ikusten zaugu Atzeko kalia heguak astinketan eta baztarrak haizaaketan, baiña noiztik dako zu zure afixia kale honetan?

Orain dala lau bat urte Irungo Txilipurdi tallerrian urten neben arrautzatik eta, berihala, artian azala eta hazurra besterik enintzala, Atzeko kaleko jai-batzordekuak hona ekarri nindduain eta hemen, Marianjeles Onraitia eta Pelmanen kuidauiari esker, orain dakoten lumaje ederrak urten nontan. Harrazkero Atzeko kalia dakot afixia.

- Baiña zure lumaje eder hori urtian behin bakarrik erakusten dozu, zergatik da hori?

Ba, Atzeko kaleko jaixak urteko sasoirik onena dalako ehizan egittera urteteko. Txorimalo kuadrilla danak urteten dogu neskatilla-mutikotara eta, tartian, ondo orraztuta doiazzen emakumien uliak endredaitten be asko disfrutaitten dot nik.

- Txorimalo kuadrilla politta zagozai Atzeko kalia?

Bai, danetik dago: txarrana, sorgiña, piratia, mutiko bihurrixia, abia-doria, sukaldarixa, bufoia, nanotxua... Ixa urtero barriren bat gehiketana xaku. Igaz, hartz haundixa etorri zan, hau erreserba natural bat zalakuan edo...

Hiru jigante be badittugu taldian: Groutxo, Mutua eta Baserritarra.



Aspaldixan kalera urteteko moduan eztaguena dragoia da, lepuan dako gaitzen bat, baiña bere tratamentua oso karua ei da eta komisiñokuak nahikua lan dakoi urtero jaixak aurrera atarateko aiña diru konsegittan.

- Ze rekorrido egitten dozu?

Atzeko kaletik plazara bajaitten gara eta Kale Barrixan gora Aitzgorri tabernaraiño faten gara eta gero Naparreneko kantoittik Portalekuaraino aillegaitten gara, umez inguraututa.

- Eta negua zela pasaitten dozu?

Lumak eta erropak ondo gordeta erdilotan pasaitten dogu negua Santa Anako kamaratan, baiña orain dala gutxira arte Aleitarrenian egitten ebein negualdixa.

-Beste salidarik eztozue asmaitten?

Normalian ez, baiña orain dala hiru bat urte, San Blasetan Beasaingo Porterixa auzora urtenalditxua egitten hasi giñan eta han be primeran pasaitten dogu.

NATUR HOUSE belardenda

- "Kiluva" etxeko produktua • Pisua kontrolatzeko terapia
- Naturista: Amaia (Naturopata eta medikuntzan lizentziatua)
 - diagnostiko organikoa
 - inpolitsozko terapia
 - test ezberdinak: (odol analisiak, gernu analisiak, tratamendu naturalak
 - Buruko minak, artrosia, ziatika, kolesterola, tentsio altua, kalkuloak, asma, alergiak...

San Lorentzo, 10 OÑATI Tefnoa: 78 26 57



Artisan lan exotikoak
Keramika
Zurezko gaiak
Arropa, Larrua
Apainketa
 Barkardade kalea, 13
 OÑATI